

**IZENBURUA:** “Lágrimas de sangre”

**PARTAIDEAK:** JAKINTZA IKASTOLA, ZUHAIZTI ZENTROA, KIMETZ EMAKUME ELKARTEA, GAZTE LOKALA.

**IDAZLEA:** Jordi Sierra i Fabra.

**LABURPENA:**

Gau horretan, Marcelok ama jipoituta aurkitzen du, aitak beste behi jipoitu egin du. Azkena izango dela erabakitzen du, eta aita hiltzeko asmoarekin ateratzen da kalera. Motorra hartu eta hiriko gaugiroan zehar gauza askoren inguruan hausnartzen laguntzen dioten zenbait lagun aurkitzen ditu. Gau luzea da, hain luzea, non bere neskalaguna, Clara, utzi eta beste batekin amodio afera izatea pentsatzen baitu. Ez dago pentsatzeko egoerarik onenean, amorruek eta mendeku goseak ez diote argi pentsatzen uzten. Behin aita aurkitzen duenean, Clarak erabakirik onena hartzen laguntzen dio.

**HELBURUAK:**

- Liburua oinarri hartuta, emakumeenganako indarkeriaren inguruko hausnarketa egitea.
- Belaunaldi ezberdinen arteko solasaldiaren bidez, norberak bere iritziak edo esperientziak gainontzekoekin partekatzea.
- Sortzen diren ikuspegi ezberdinen aurrean hausnartzea eta errespetuz eta berdintasunez jokatzeko ikastea, ondoren bizitzako beste egoerentarako balio izateko.

**BALIABIDEAK:**

Liburua.

**BALORAZIOA:**

Or ohar, parte hartu duten guztiak pozik geratu dira. Oso aberasgarri eta baliogarri aizan da.



**IZENBURUA: “La piedra de toque”**

**PARTAIDEAK:** BERDINTASUN ARLOA, GOYENECH E FUNDAZIOA, JAKINTZA IKASTOLA, ZUHAI ZTI ZENTROA, KIMETZ EMAKUME ELKARTEA.

Ekintzan nerabeek, helduek eta nagusiek hartzen dute parte.

**IDAZLEA:** Montserrat del Amo.

**LABURPENA:**

Lagun kuttun baten heriotzaren ondoren, Carlos Albertok depresio izugarria jasaten du. Amak psikiatrarengana eramaten du, psikiatra horrek garun paralisia duen lagun bat en ardura ematen dio. Carlosek bere amaren aurreiritziei egin behar die aurre, eta balore berriak eta erantzukizunaren benetako zentzua ikasiko ditu.

**HELBURUAK:**

Liburua erabiliz ezinduek gizartean duten egoeraren inguruko hausnarketa lantzea. Solasaldiaren bidez norberak bere iritziak edo esperientziak gainerakoekin partekatzea. Sortzen diren ikuspegi ezberdinena urrean hausnartzea eta errespetu zeta berdintasunez jokatzen ikastea, ondoren bizitzako beste egoeretarako balio izateko.

**BALIABIDEAK:**

Bakoitzak bere aldetik landu du gaia. Montserrat del Amoren "La piedra de toque" eleberria irakurri da aurretik, et aheri izan da elkarrizketaren abiapuntu nagusia. Barrena Kultur Etxeko aretoa erabili da denok biltzeko.

**BALORAZIOA:**


lazko formatu bera izaten jarraitzen du ekintzak, Genero Indarkeriaren ingruruan egindako ekintzak izandako arrakasta kontuan izanik. Aurten ezinduen gaia landu da.

Orokorrean jendea oso oso gustora egon da. Berdintasun arlotik, genero ikuspegia txertatze aizan da helburua, eta horretarako, Miriam Herbón aditua ekarri da azalpenak emateko.

Beraz, erabat probetxugarri aizan da.

**HOBKUNTZA PROPOSAMENAK:**

Ekintza egiteko izan dugun denbora motz geratu zaigu.



**IZENBURUA:** “Mi hermana vive sobre la repisa de la chimenea”

**PARICIPANTES:** BERDINTASUN ARLOA, GOYENECHÉ FUNDAZIOA, JAKINTZA IKASTOLA, ZUHAIZTI ZENTROA, KIMETZ EMAKUME ELKARTEA.

**IDAZLEA:** Annabel Pitcher

**LABURPENA:**

Jaimek, 10urteko umea, bere familiaren historia kontatzen du. Eraso terrorista betak bere familia suntsitu ondoren, nor bere bizia berreraikitzen saiatzen da.

Jaimek bere familia berreskuratzeko egiten duen borrokak hunkitu egiten du irakurlea, baina humorez eta itxaropenez betea dago aldi berean. Jaimeren kontaketa hain da sakona, non ezin baita ekidin bere alde jari eta mundua bere begiekin ikustea.

**HELBURUAK:**

Liburuak esparru ugari ukitzen dituela kontuan izanda, helburu nagusia pertsonaia nagusiarena zalean ipintze aizan da, izan ere, umeak inork bizi beharko ez lukeen errealitatea bizi baitu.

Belaunaldi ezberdinen arteko solasaldiaren bidez, norberak bere iritziak edo esperientziak gainontzekoekin partekatzea.

Sortzen diren ikuspegi ezberdinen aurrean hausnartzea eta errespetuz eta berdintasunez jokatzeko ikastea, ondoren bizitzako beste egoeretarako balio izateko.

**BALIABIDEAK:**

“Mi hermana vive sobre la repisa de la chimenea” eleberria.  
Barrena Kultur Etxeko areto nagusian egin da solasaldia.

**BALORAZIOA:**

Eleberriak sentsazioak eta bizipenak partekatzeko aukera zabala ematen digu, partehartze handia izan denez, ez dugu solasaldia egiteko nahikoa denbora izan.


Partaide guztiei asko gustatu zaie eleberria, gainera, erraz irkurtzen da eta denak pertsonaia nagusiarena zalean ipin idira irakuketa egin bitartean.

Miriam Herbón etorri izana oso interesgarri eta emankorra izan da.

**HOBEKUNTZA PRPOSAMENAK:**

Denbora eta protagonismo desberdinak banatzearen garrantzia.

Herri mailan oihartzun handiagoa.



**IZENBURUA: “El secreto del fuego”**

**PARTICIPANTES:** BERDINTASUN ARLOA, GOYENCHE FUNDAZIOA, JAKINTZA IKASTOLA, ZUHAIZTI ZENTROA, KIMETZ EMAKUME ELKARTEA.

**IDAZLEA:** Henning Mankell

**LABURPENA:**

Behin Sofiak pertsonen aurkako mina bat zapaldu zuen. Bere herriaren, Mozanbike, kanpoaldean lurperatuta zegoen. Sofia pertsona erreala da. Biziraun egin zuen eta ez da zapaltzen uzten. Henning Mankell eta Sofia oso gertuko lagunak dira.

Gauean korrika dabil Sofia. Ilun dago eta beldur da. Sasi eta zuhaixka artetik dabil korrika. Ez du bidea ikusten, baina gogoratzen du, bere oinek badakiten non biratu eta non joan zuzen. Zeren ihesi ote dabil iluntasunean? Begirik ez duen animalia batengandik? Ezkutatu egin behar du, bidetik irten eta makurtu, sasi artean txiki egin. Antilopeek egiten duten bezala salto egiten du, eta lurra uzten du. Orduan konturatzen da...

**HELBURUAK:**

Solasaldiaren bidez norberak bere iritziak edo esperientziak gainerakoekin partekatzea.

Sortzen diren ikuspegi ezberdinena urrean hausnartzea eta errespetu zeta berdintasunez jokatzeko ikastea, ondoren bizitzako beste egoeratarako balio izateko.

**BALIABIDEAK:**

Udalak Miriam Herbón kontratatu du dinamizazio lanak egin eta solasaldia aberasteko.

Liburua: El secreto del fuego. Material didáctico.

Goyeneche Fundazioak egindako piktogramak.

Udaletxeko Batzar aretoa.

**BALORAZIOA:**

Oso interesgarri aizan da, eta, or ohar ekintza oso ondo joan da.

Gazteenei kosta egin zaie hitz egiten hastea, baina konfidantza hartzen joan diren heinean, parte hartzen has idira. Denon artean oso solasaldi interesgarria sortu da. Hala ere, elkarte hauez kanpoko partaide gutxik parte hartu duela aipatzen da.

Goyeneche Fundaziotik aipatu dute aurten parte hartzeko aukera handiagoa izan dutela; batetik dinamizazioari esker, eta bestetik, fundazioa bertati hobe prestatu dutelako ekintza. Dena den, pertsona batek bekarrik hitz egin du, gainerakoentzat talde handiegia izan da.

Oso aberasgarri eta positiboa da ekintza, datozen urteetan errepikatzeko asmoa dago.


**HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK:**

Jakintza Ikastolatik aipatu da datorren urterako ikasleen gurasoak inplikatu nahi dituztela.

Bestalde, Ordiziako herritarren partaidetza sustatzeko beharra ikusten da.

Goyeneche Fundaziotik ekintza honekin batera, talde txikiagoak bilduko dituen beste bilgune bat egitea proposatu da.





**IZENBURUA: "Pacto de sangre"**

**PARTAIDEAK:** BERDINTASUN ARLOA, GOYENECHÉ FUNDAZIOA, JAKINTZA IKASTOLA, ZUHAIZTI ZENTROA, KIMETZ EMAKUME ELKARTEA.

**IDAZLEA:** Mario Benedetti.

**LABURPENA:**

Octaviok 84 urte ditu. Bere ohean edo kulunkatzailean igarotzen du denbora. Pertsona harroa da, eta ez du inorengandik ezer espero, gainera ez zaharra dela onartzen, hori dela eta hitz egiten ez dakienaren plantak egiten ditu besteen aurrean. Iragandako bizitzan arakatu eta ahaztua zuen xehetasunen bat gogoratzea d abere denbora-pasa.

Egun batean, aitonak, etxean bakarrik zegoela pentsatuta, "arraioa" esan zuen, giltzurruneko mina zuelako. Ez zegoen bakarrik baina, bilobak entzun eginzuen. Ordunik, odol-ituna egin zuten, biloba kez zizoni nori esango aitonak hitz egiten zekienik, eta aitonak ipuin ezezagunak kontuko zizkion. Umea pozik dago aitonak berari bakarrik hitz egiten diolako. Octaviok ez du gustuko aitona deitzea, baina guztiek egiten dute, alabak barne. Alabaren senarrak esaten dio semea kanpora joango dela ikastera. Octavio bakarrik geratuko zen. Horregatik erabakitzen du gehiago ez hitz egitea, bilobarekin zuena ez hausteagatik.

**HELBURUAK:**

- Belaunaldi ezberdinen arteko solasaldiaren bidez, norberak bere iritziak edo esperientziak gainontzekoekin partekatzea.
- Sortzen diren ikuspegi ezberdinen aurrean hausnartzea eta errespetuz eta berdintasunez jokatzeko ikastea, ondoren bizitzako beste egoerentzako balio izateko
- Zahartzaro aktibo gaia lantzea esperientziak partekatuz.

**METODOLOGIA:**

Ordezkariekin batera prestatu da ekintza hianbat bileratan. Talde bakoitzak, gainerako urteetan egin den bezala, liburuaren gai abere aldetik jorratu du. Behin irakurketa amaituta, eta adostutako datan, taldea batu da bizipena keta sentazioak konpartitzeko. Aurten ere dinamizatze bat egon da solasaldia gidatu eta baerasteko, Krmele Gurrutxaga, zahartzaroan aditua. Goyeneche Fundazioko taldeak, ezitzaileekin batera, piktogramen bidez landu du eleberria.

**BALIABIDEAK:**

Dinamizatzailea kontratatua (Karmele Gurrutxaga – zahartzaroan aditua) – Udalak (Gizarte heziketa).  
Garagunekoak: sortutako piktograma (ikaragarria).  
Zuhaiztiko areto nagusia.

**BALORAZIOA:**

Ekintza ez zen beste urtetan moduan irten. Ez genuen lortu elkarriketarako dinamika egokia sortzen ezta ere gaia bizipenetan zentratzea. Zuhaiztiko taldekoak ez ziren gustura gelditu. Liburuxka ez zitzaien gustatu, ez zuten bere burua islatuta ikusi liburuxkan azalarazten zen zahartze bizipen horietan eta dinamika ere ez zitzaien gustatu. Talde honen partaide bat mintzo zen eta sortutako eragina ez zen berak nahi zuena. Baina horrek baldintzatu zuen dinamikaren bukaera osoa. Ez-ulertzeak sortu zituen, talde bakoitzak aurretik landutakoa ez genuen ezagutzen, agian informazio hori ere falta zitzaigun ekintzaren aurrean ongi kokatzeko eta elkar-ulertzeko. Partaide guztien arteko ebaluazio bilera falta da ekintza modu sakonean ebaluatzeko eta hurrengorako proposamenak egiteko.

**HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK:**

Helburu zehatzak izendatzea  
Metodologia aztertzea eta egokitzea.  
Gidoi baten inguruan lanketa egitea.  
Gaia prestatzeko talde bakoitzak aurretik landutakoa ezagutzea.